

ETAren su-etena

Erreakzioak ♦ CDN eta Nafarroako IU

Alli: «ETAren agiriak ez du Nafarroa Euskadin sartzea baldintzatzat jartzen»


Bere ustez, ezin da eskatu armak entregatzeko elkarrizketak hasi aurretik

CDNko presidente Juan Cruz Allik kritikatu egin zituen atzo UPNk, PPk eta PSN-PSOEk ETAren su-eten eskaintzaren aitzinean erakutsi jarrerak. Alliren arabera, ETak ez du bakera heltzeko aurrebaldintzarik ezarri, ETak Euskal Herriaren lurraldetasuna defendatzea CDNk Nafarroaren nazio izaeraren alde egitea bezain zilegia da, eta ETari ezin zaio negoziatu aurretik armak entregatzeko eskatu.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

UPN-K eta PSN-PSOEk ETAren su-eten eskaintzari egindako kritika nagusia da bakera heltzeko aurrebaldintzak jartzen dituela, eta horien artean «Nafarroa Euskadin sartzea» dagoela. Haatik, Juan Cruz Allik, agiria ongi aztertu badu ere, ez du aurrebaldintza bakar bat ere aurkitu. «Aurrebaldintzarik ez dago. Agiriak abertzaleen ohiko diskurtsoari eusten dio, eta horren barruan lurraldetasunaren defentsa dago, baina hori CDNk Nafarroaren nazio izaera defendatzea bezain zilegi da. Bakoitzak bere proiektu politikoa du, eta Nafarroako alderdiek eta herritarrek erabaki beharko dute zein aukeratzuten duten».

Allik eskutitza igorri dio Espainiako presidente Jose Maria Aznarri, Nafarroaz hitz egin behar duten negoziatziogune guztietan Nafarroako alderdiak ordezkatzuta egotea exijitzeko. Halaber, bilera egiteko eskatzen dio Aznarri. Allik espero du Aznarrek ez segitzea Espainiako Gobernuko bozeramaile Josep Piquek herenegun egin adierazpen «tamalgarriekin». Piquek esan zuen ETak armak utzi



Juan Cruz Alli CDNko lehendakaria.

LUIS AZANZA

Juan Cruz Alli:

«Bakoitzak bere proiektu politikoa du, eta Nafarroako alderdiek eta herritarrek erabaki beharko dute zein aukeratzuten duten»

«Espainiako Konstituzioak autodeterminazio eskubidea aitortzen dio Nafarroari, eta beraz, nafarrek, eta soilik nafarrek, erabakiko dute beraien geroa»

beharko dituela negoziatzen hasi aurretik; Alliren aburuz, horrek ez du zentzurik. «Esperientziak erakusten du armak entregatzea elkarrizketaren ondorioa dela. Armak aurretik entregatzea soilik gertatzen da elkarrizketarik gabeko errendizioetan».

Alliren ustez, eszenatoki berrian sortzen diren negoziatzioguneetan, «soilik zilegitasun

demokratikoa dutenek» hartu behar dute parte. ETak parte hartu nahi badu, bere ordezkartza «beregandik gertuen dagoen alderdiaren esku utzi beharko du». Azaldu zuenez, alderdiok ez dute Iruñeko, Gasteizko edo eta Madrilgo itunetan bildu behar. Itunok demokraten eta bortitzen arteko mugaren inguruan funtzionatzuten zuten, eta Alliren abu-

ruz horrek jada ez du balio. Halaber, adierazi zuen Miguel Sanz lehendakariak, alderdiekin egiten ari den elkarrizketen baitan —gaur goizean Allirekin elkartuko da Nafarroako Jauregian—, HBrekin ere hitz egin beharko lukeela.

Bestalde, Alliren ustez, Nafarroak ez du hasiko diren negoziatziotan erabakitzen denaren beldurrik izan behar. Izan ere, Espainiako Konstituzioak autodeterminazio eskubidea aitortzen dio Nafarroari, «eta beraz, nafarrek, eta soilik nafarrek, erabakiko dute beraien geroa». Allik iragarri zuen CDNk bere betiko diskurtsoaren alde egingen duela. «Nafarroa ezin da gainontzeko erkidegoekin konparatu. Eskubide historikoak dauzka, eta horiek aitortu behar zaizkio autogobernu gehiago emateko. Eredu asimetrikoa erabili behar da». X

Nafarroako IUk Irlandako Foroaren bileretan parte hartzea erabaki du, «ETAren su-etena ikusi eta gero»

■ Taberna: «Lehen egunetako pozaren ostean, alderdiok bakea lortzeko ardura hartu behar dugu»

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO IUko Zuzendaritza Batzordeak, «ETAren su-eten iragarpena aztertu eta gero», Irlandako Foroaren bileretan parte hartzea erabaki du. Nafarroako IUko koordinatzaile nagusi Felix Tabernaren arabera, «lehen egun hauetako pozaren ostean, alderdiek bake bidezkoa eta iraunkorra lortzeko ardura hartu behar dute». Horrenbestez,

IUk elkarrizketa eta adostasuna bultzatuko ditu, eta Irlandako Foroan ez ezik, elkarrizketa gune guztietan ere parte hartuko du.

IUren idurikoz, Nafarroan Parlamentua da elkarrizketarako topagunerik aproposena. Indar ezkertiarrek uste du Parlamentuan batzorde edo lan talde bat eratzea dela lan egiteko modurik egokiena, eta Gobernuak Parlamentura igorri komunikazioa, berriz, ez da batere egokia.

IUko koordinatzaile nagusiak azaldu zuen Miguel Sanzek oker handia egin duela «Nafarroako gizartearen geroaren inguruko beldur mezua hedatuz, mehatxatuta dagoela eta bakearen truke eman dezaketela esanez». Esan zuenez, xede bakarra izan da PSNren sustengua lortzea, Gobernuak Parlamentura igorri duen deklarazioa onartzeko. «Sanz ezagututa, argi dago zuhurkeria politikoz aritu dela».

Tabernak bilera egin zuen atzo Espainiako IUko buru Julio Angitarekin. Angitak aurki Espainiako presidentearekin egiten duen bilera prestatzen aritu ziren. «IUren proposamena da, egungo marko konstituzionaletik abiatuta, autodeterminazio eskubidearen onarpenerantz aurrera egitea, eta IUren proiektua da Espainiako estatu federal, plurinazional eta demokratikoa osatzea». X

♦ Jaime Mayor Oreja ♦ Espainiako Barne ministroa

«Hauteskundeak errespetatzen baditu ikusiko da su-etena egiazkoa den»

Mayor Orejak atzo azaldu zuenez, EAEko hauteskundeak izango dira «su-etena egiazkoa den erakutsiko duten frogak». «Ikus dezagun hauteskundeei begira fronte nazionalista osatu dutenek zer esan eta egiten duten emaitzak ikusi ostean; posible baita ez hain gustura geratzea», esan zuen. «Ea ETak ere emaitzak errespetatzen dituen», azaldu zuen. Haren ustez, bake bidea «pauso pauso» egin behar da: «flexibilitate apur bat izan behar da, baina borroka antiterroristaren printzipioak baztertu gabe». Bestetik, «Konstituzioa negoziatzea» dela azaldu zuen. X

♦ Jordi Pujol ♦ Generalitateko presidentea

«Konstituzioa hobetu daiteke, baina ez aldatuz, interpretatuz baizik»

Jordi Pujolen ustez, «ETAren su-etena aprobetxatu gabe utzi ezin den aukera bat da». Esan zuenez, CiUk babes guztia emango die alderdi nazionalistei euskal politikari dagozkion gaietan. Bestalde, Konstituzioarekiko «leialtasunez» jokatu ko dutela esan zuen, «ETAren su-etenean jartzen diren baldintzei» erreferentzia eginez. «CiUrentzat Konstituzioa moldatzea ez da beharrezkoa, nahiz eta hobetu daitekeen», adierazi zuen Pujolek. «Konstituzioa hobetu daiteke, baina ez aldaketa baten bidez, interpretazioaren aldetik baizik». X

♦ Jose Borrell ♦ PSOEko hautagaia Espainiako presidentziarako

«Zuhurtasuna eta diskrezioa behar da»

Borrellek «zuhurtasuna eta diskrezioa» eskatu ditu, bake prozesuan aurrera egin ahal izateko. Alderdien artean egiten ari diren kontaktu bileretan bi baldintza horiek beharrezkoak direla deritzo, «zein posizio hartu behar diren iragartzeak prozesua aurrera egiteko aukera mugatu besterik ez baitu egiten». Borrellek azaldu zuenez, Gobernuak zein jarraian behar duen galdetuko dio Aznarri bihar egiteko diren bileran. «Asmoa ez da konfrontazioa sortzea, sozialisten lankidetzara behar duenerako eskaintzea baizik, eta etor daitezkeen arriskuak saihestea», gaineratu zuen. X